

# AXULAR, MENDIBURU, LIZARDI

## (Bigarren iarduna)

Atzeko berrogei ta amar urteetan euskeraz idatzi dutenen artean (gu ere O ta O' gizaldi ortako gaituzute) bi aburu izan dira idazleen artean; batzuen, Axular mordollozale edo erdalzale dala, bai itzetan bai ioskera esan zaion orretan; besteen, erdal-keri batzu gorabera Axular dala, lengoetan beintzat idazlerik iatorrena ta ederrena. Nor dago izpidean? — Ez dugu astirik galduko berriketan. Pitagoras'en iakinkizuna egi baldin ba'da, garbi ikusiko dugu, iñork bestera ez aitortzeko eran, bigarren oriek dirala urbil arrazoidun.

Baiña lenik itzez mugatu dezagun zer dan syntaxi ori. Guk itz-urrena edo itzen segida esango diogu, orain arte ioskera esaten diotenari; au da, prantsesen *ordre des mots* orri. Ioskera esaten diotenari, berriz, itz-alkarkera deritzokegu. Adibidez, *zeren, ezen, baizen, non* eta abar, itzak itzekin edo esaerak esaerekin elkartzen ditute. Itz-kondots, lokarri edo elkargarri orien erabilkerari bakarrari deritzogu ioskera.

Beraz, izpidean dago GERO'ren azkeneko itzaurregillea, onako au diagonean: “euskal liburuetan *facile princeps*”; baiñan ez dira gezur beste itz auek ere: “*zeren, ezen* eta abar oriek ez dute bat ere faltarik egiten” (XXIII). Orietan dago Axular'en erdal-keria; baiña barkakizun dugu bere syntaxi bikaiñarengatik.

Ez dago, ordea, izpidean itzaurregille ori beste latinkerietan ari dalarik, ots: itzurrenari dagokionez: “Axular'en zatiak latin usai geitxo du, eta baserritar arruntak zati au iatorkiago iosten du...” — Ain zuzen ere latin iatorretik latin kaxkarrera, gaztelanira, aldegiten dulako ari da gaizki Axular. Gure baserritarren itzurrena latinik iatorrenarena baiño iatorrago da.

Zer bada, diokezu? Latiña ta euskera biak bat al dira? itzurrenean? — Bai iaunak, eta ez arritu. Baizik ere, euskera zârrago

dala. Beraz, latiñak euskerari artu al dio itzurren ori? --Ez, biak lenagoko bati; ausaz len-lenengo izkuntzari. Euskerak esan dezake latiñarengatik, arako anai arek beste anaiarengatik ziagona: "anai al duzu olako?", eta "ez, arek nau ni anai".

Gure azalkizunera goazala, euskera ta latin iatorren itzurrena berbera da, eta euskal idazle berriena iatorrago oraindik, baserri-tarrekina elkar artzen dutela. Or esaten diran eguneroko iardur-neko utsen gaiñetik, baserri-tarrak euneko ia ia eun aldiz itzurren iatorra du, ots, galderari dagokiona; idazle berriagoak ere bai, Luis Mitxelena iauna ta Aita Villasante lekuko.

Eta zer alde daukate elkarren artean, esaterako, Kikeron'ek eta Axular'ek? Bere tokian ikusiko dugunez euneko laurogei ta amalau aldiz itzurren egokia dute biak; beraz, bat ere ez dio zorrik Axular'ek Kikeron'i, *el mejor prosista del mundo* Menéndez y Pelayo'k esana.

Galdekizuna aditza bera dalarik, au ipiñi oi dugu len-tokian; bai agintzeko eta opa izateko iokabideetan; bai eta azkenik (izan ere) ala dala edo gertakizunen bat nabariazi nai danean; beste-rantzean, galdekizuna aditzaren ezkerretan ipiñi oi dugu, norgaldekoko edo *subjectum* naiz aurretik naiz atzetik dala, latiñean eta euskeran ere ikusiko dugunez.

S. v. c. = *subjectum, verbum, complementum* ordez, s. v. q. = *subjectum, verbum, quaestio*, ezarriko dugu. Ez dator ongi askotan c. ori, batez ere *directum* eratxiki ba'ledio. Aditzari gal-dera xuxen egitean, *nor, noren, nori*, t. a. guziak *complementum* bezala io ditezke. Beraz, *lo cuestionado* o *inquirido* obeki aditzen dugu.

## A X U L A R

*Gomendiozko gutuna*: 113'tatik zazpi uts, au da, euneko sei uts gutxi gora bera; q. v. s. = 48; s. q. v. = 35; v. q. = 22; q. v. elkarrengandik ezin bananduak dira.

*Irakurtzaileari*: 107'tatik q. v. = 81; v. q. = 26; utsak: 7 osta. (Liburuaren erdian). *Koleraren iraungitzeko*: Euneko zor-tzi uts.

*Utsak*: Emen zenbait uts bakarrik ipiñiko ditugu.

## Irakurtzaileari

*Ikusirik zein gauza guti edireiten den euskeraz eskiribaturik. Zuzen onela: euskeraz eskiribaturik zein gauza guti edireiten den ikusirik. Baldin egin balitz euskeraz anbat liburu... zuzen onela: euskeraz anbat liburu egin baldin balitz.*

## XXVII. Koleraren iraingitzea

*Consideratzea... egiten duzula. Egiten duzula consideratzea.*  
Edo erabateko galdekizuna: *erran zuenean* (Galdekizunaren aurremutilla zaio peitu) *au erran zuenean.*

*Eta ikusirik nola zihoan.* Zuzen onela: *eta nola zihoan ikusirik.*

## MENDIBURU

Onengatik entzun ukan dugu “Kikeron euskalduna” esaten, baiñan aburu ori aldarazi bearrean gaude orrela uste duteneri. Luis Eleizalde zanari esker, Mendiburu’ri gora aundia ematen ikasi genun eta, uste genezaken, oraindik, erderakeriak ukan arren, ez zala Axular bezain erdalzale edo erdaldun. Pitagoras’ek beste aldera erakutsi digu. Kikeron’en izen aundia Axular’i utzi bearra dauka Mendiburu’k, apalago gelditzen baita. *Zeren eta ezen* orietan, Axular baiño urriago diteke; baiñan itzurrenean asko kentzen dio Urdazuritarrak. Otoitz-gaiak deritzaten iru buldueri erditik ebaki bat emanez, au dugu auteman:

- I. XIII’garren atalean: euneko amabost uts (15 %).
- II. LXXIV’ ” ” euneko sei, asko barkatuta (6 %).
- III. XLIV’ ” ” euneko emeretzti uts (19 %).

Gauza bat artu dugu oargarri: *izandu ta egondu* ardura derabiltzala. Iragana adierazteko, onako O onek ere, beti onela derabiltza izketan, eta arrotz egiten zaio *izan* eta *egon* iraganak dirala entzutea. Iakiña, -a agerian edo ixillean baldin ba’deramate, iraganak dira; baiñan ez ba’deramate, orainaldiko dira. Orrela bereizi oi dute AN, BN, L, Z guzi guzian, eta aztarren ori ez diteke nolanai utzi.

Uts bakar batzuk:

- I. XIII. *ekusi orduko gu betiko galduak,*  
*gu beti galduak ekusi orduko.*  
*agertu zien erremedio bera,*  
*erremedio bera agertu zien.*  
*egin orduko Jaunak Adan,*  
*Jaunak Adan egin orduko.*  
*egondu zela begira gure Jaungoikoa,*  
*gure Jaungoikoa begira egondu zela.*

- II. LIV. *egiñagatik... erdisteko bear zan aiña,  
erdisteko bear dan aiña egiñagatik.  
zuk egitera Samuel'ek egin zuena,  
Samuel'ek egin zuena zuk egitera.  
kentzen ba'dugu gure eskua, (ba'diogu)  
gure eskua kentzen ba'dugu.  
anitz izanagatik egin diozkan gaizkiak,  
egin diozkan gaizkiak anitz izanagatik.*

- III. XLIV. *nola ori oriek egin dezakee?  
oriek ori nola egin dezakee?  
beren aldetik egin ezkeru egin dezakeena,  
egin dezakeena beren aldetik egin ezkeru.  
batzuk bekaturatzen dira oartukabeen bezala,  
batzuk oartukabeen bezala bekaturatzen dira*

## LIZARDI

Onek, bai, garbitzen ditu Mendiburu, Axular ete Kikeron ere. *Itz lauz* deritzan liburuan, euneko eunetan itzurren egokia deraibil. Eta neurtitzetan ere, etzaio arkituko, bear ba da, euneko bitatik gora. Guk *Lau Urte-giroak* deritzan olerki bikaiña aztertu dugu, eta, 147'tatik lau uts besterik ez, au da, euneko iru eskas.

*Oi zein dan ituna — bera-bear au!  
nik ez nai eguna — biurtzerik gau! (gau biurtzerik).*

Galdekizuna bi itzetan dagonean, bakandu diteke, aditza tar-tean dula.

Berrogeitamar urtez atzeko idazleetan eta azkeneko labealdiko auetan, badira Lizardi'k bezain ongi egiten dutenak. Gure inguruko izkuntzetan ez ezik latinean ere, eta ezago grekoan, itzurrena ez da ain iatorra. Euskal-itzurrena emendik ara gotor geldituko da, ta ez da kaxkartuko beste izkuntzetakoa bezalā, Azkue'ren Azkuenze'ri ta Altube'ren *Sintaxis del Euskera*'ri esker. Ez ote da egin ezer berrogeitamar urte auetan?

Lan ontako gure euskera ez da erriarena, ez gera erriarentzat ari; gizon ikasiagoentzat ari gera, ta iñon euskera garbira io ba diteke, Euskalzaindiaren agerkari dan EUSKERA'n iotea zillegi da.